

Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegilean ezarritakoa jarraituta egingo da.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Izapidetze telematikoko prozedura garatzen bada, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 45. artikuluan ezarritakoaren arabera, hori erregulatzeko araua argitaratutakoan, prozedura horretan adierazitakoaren arabera bideratu ahal izango dira agindu honetan jasotako laguntzak.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Agindu hau indarrean sartutakoan, baliorik gabe geratuko da 2000ko ekainaren 30eko Industria, Merkataritza eta Turismo Sailburuaren Agindua, hiritar guztiak euskal turismo-eskaintzara iritsi ahal izateko laguntza-neurriei buruzkoa.

#### AZKEN XEDAPENAK

*Lebena.*— Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

*Bigarrena.*— Agindu honen aurka, Euskadiko Auzitegi Nagusian Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa ezarri ahal izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita, bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko apirilaren 16a.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,  
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

#### Zk-2784

AGINDUA, 2003ko apirilaren 16koa, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailburuarena, turismoaren inguruko edukia izango duten ikastaro, jardunaldi, mintegi eta bisita teknikoak egiteko laguntzak ematea arautzen duena.

Sustapen ekonomikoko helburuekin hainbat laguntza zehazten dituen ekainaren 7ko 121/2000 Dekretuak, V. Kapituluaren turismoaren arloan laguntza-lineak arautzen ditu, eta zehazki 29. artikuluan turismoaren inguruko edukiak dituzten ikastaroak, jardunaldiak eta mintegiak egiteko laguntzen programa, Lehen Azken Xedapenean Industria, Merkataritza eta Turismo Sail-

el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

#### DISPOSICIÓN ADICIONAL

En el supuesto de que se desarrolle un procedimiento de tramitación telemática, de conformidad con lo establecido en el artículo 45 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, una vez publicada la norma que lo regule, las ayudas contempladas en la presente Orden podrán tramitarse de acuerdo con el mismo.

#### DISPOSICIÓN DEROGATORIA

A la entrada en vigor de la presente Orden quedará derogada la Orden de 30 de junio de 2000, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se establecen las medidas tendentes a promover el acceso universal de todos los ciudadanos a la oferta turística vasca.

#### DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*— La presente Orden entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Segunda.*— Contra la presente Orden podrá interponerse recurso-contencioso-Administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de abril de 2003.

El Consejero de Industria, Comercio y Turismo,  
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

#### Nº-2784

ORDEN de 16 de abril de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula la concesión de ayudas para la realización de cursos, jornadas, seminarios y visitas técnicas de contenido turístico.

El Decreto 121/2000, de 7 de junio, por el que se establecen distintas líneas de Ayudas con Fines de Promoción Económica, regula en el Capítulo V las líneas de ayuda en el área de Turismo, y concretamente en su artículo 29, el programa de ayudas para la realización de cursos, jornadas y seminarios de contenido turístico, facultándose en Disposición Final Primera al Con-

buruari ekintza horiek garatu eta exekutatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko ahalmena eskainiz.

Dekretu horren arabera, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailburuaren 2000ko ekainaren 30eko Agindua eman zen. Agindu horren bidez turismoaren inguruko edukiak dituzten ikastaroak, jardunaldiak eta mintegiak egiteko laguntzak arautu ziren. (2000ko uztailearen 10eko 131. zenbakidun EHAA).

Agindu horrek prestakuntzako ia jarduera guztiak kofinantzatzen ditu, lanerako prestakuntzan, etengabeko prestakuntzan edo araututakoan antolatutakoak izan ezik. Diruz lagundutako jarduera horiek turismoarekin lotutako gaiak aztertuko dituzte, eta Erkidego honetako kudeatzaile eta turismo-agenteen gaitasun profesionala hobetzeko eta eguneratzeko izan behar dute. Jarduera horien antolakuntzak honako ohiko formatu hauek ditu: kongresuak, ikastaroak, jardunaldi teknikoak, mahai-inguruak, mintegiak eta, Agindu erregulatzailean jasotzen den bezala, antzeko beste hainbat jarduera.

Indarrean sartu zenetik iragandako denboran hainbat aldaketa egin beharra ikusi da. Zehazki «antzeko jarduera» horietako bat garatu nahi da; hots, eduki turistikoa duten bisita teknikoak ari gara aipatzen, bai EAE barruan egindakoak zein beste autonomia-erkidegoetan egindakoak, betiere, helburua honako hau izanik: jatorriko eta helmugako turismo-arduradun eta agenteen artean, turismoko azpisektoreak garatzeko erduei eta esperientziei buruz jakintza eta ezagutza elkarrekin trukatzeari; gure ustez, zuzenean eta bertatik beste errealitate turistiko batzuekin harremanak izatea oso bide ederra baita ikasteko eta komunitate turistikoan lankidetzara eta ezagutza bultzatzeko.

Bestalde, aldaketa teknikoak egin dira. Aldaketa horien bidez, batetik, lehengo idazkera-modua dela-eta, interpretazio-arazoak eragiten zituzten zenbait zatiren zentzua argitu nahi dira, eta bestetik, programari buruzko ebaluazioaren eta azterketaren ondorio gisa, araua bera berriz diseinatu nahi da, bere helburuak lortzeko tresna baliagarri izan dadin.

Egin nahi diren aldaketak ikusita, onurragari ikusten da agindu hori indargabetu, eta, haren ordean, egindako aldaketak sistematikoki artikulatuko dituen xedapen berri bat ezartzea.

Eta hori guztia kontuan hartuta honako hau,

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA  
XEDAPEN OROKORRAK

1. *artikulua* – Xedea.

1.– Aginduaren xedea: sustapen ekonomikoko helburuak dituzten hainbat laguntza-linea ezartzen dituen

sejero de Industria, Comercio y Turismo para dictar las disposiciones que sean precisas para su desarrollo y ejecución.

Al amparo del citado Decreto, fue dictada la Orden de 30 de junio de 2000, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula la concesión de ayudas para la realización de cursos, jornadas y seminarios de contenido turístico. (BOPV n.º 131 de 10 de julio de 2000).

La citada Orden, cofinancia todas aquellas actividades formativas, salvo las correspondientes a la formación ocupacional, permanente o reglada, que traten temas relacionados con la actividad turística y que estén dirigidas a mejorar y actualizar la capacitación profesional de los gestores y agentes turísticos de nuestra Comunidad. El formato clásico de organización de estas actividades es el de congresos, cursos, jornadas técnicas, mesas redondas, seminarios y, tal y como se recoge en la Orden reguladora, de cualquier otra forma análoga.

En el período de tiempo transcurrido desde su entrada en vigor se ha constatado la necesidad de llevar a cabo una serie de modificaciones. Concretamente, se pretende desarrollar una de estas «formas análogas» como es la de las visitas técnicas de contenido turístico que se realicen dentro de la CAPV o en otras Comunidades Autónomas, y cuya finalidad sea promover el intercambio de conocimiento sobre experiencias, modelos de desarrollo de los distintos subsectores turísticos, etc. entre los responsables y agentes turístico de origen y de destino, porque entendemos que el contacto directo y «en situ» de otras realidades turísticas son una fórmula magnífica de aprender y de impulsar el conocimiento y la cooperación en la comunidad turística.

Por otro lado, se han realizado cambios de carácter técnico, cuya introducción se ha considerado oportuna al objeto de clarificar el sentido de algunos apartados que, por su inicial redacción, planteaban problemas de interpretación y, por otro, de rediseño de la propia norma, fruto de la evaluación y análisis del programa como herramienta válida para el logro de los objetivos que la justifican.

A la vista de las modificaciones que se pretenden introducir resulta conveniente derogar la citada orden y sustituirla por una nueva disposición que articule los cambios introducidos de una manera sistemática.

En su virtud,

DISPONGO:

CAPÍTULO I  
DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*– Objeto.

1.– El objeto de la presente Orden es desarrollar el marco general del Programa de ayudas para la realiza-

ekainaren 27ko 121/2000 Dekretuaren 29. artikuluan ezarrita, turismoaren inguruko edukia duten ikastaro, jardunaldi eta mintegiak egiteko laguntzen programaren esparru orokorra garatzea.

2.– Laguntzen programa horren arabera, diruz lagunduko dira turismo-arloari lotutako gaiak erakutsi eta garatuko dituzten jarduerak, honako antolaketa-moduak erabilita: kongresuak, ikastaroak, jardunaldi teknikoak, foroak, mahai-inguruak, mintegiak edo antzeko beste batzuk, baita eduki turistikoko bisita teknikoak ere.

### 2. artikulua – Baliabide ekonomikoak.

1.– Aurreko artikuluko helburuak lortzera zuzendutako baliabide ekonomikoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik jasoko dira, edo, aurrekontuetan edo euren loturen arabera aldaketak onartuz gero, kreditu horiek eguneratuta sortzen direnetatik.

2.– Aurkeztutako laguntza guztiak aldi berean esleituko dira, lehiaketaren teknika erabili gabe; izan ere, exijitutako baldintzak beteta, aurreikusitako jarduerak burutzen dituzten guztiei laguntzak emateko helburua duen programa da. Aurrekontuak nahikoak izango ez balira, berau jasotzeko onuradunen artean laguntza honetara zuzendutako gehiengo zenbateko orokorraren banaketa proportzionala egingo da, kalkulatzeko oinarri bezala, diru-laguntza teorikoaren zenbatekoa hartuz.

3.– Ekitaldi bakoitzari dagozkion laguntzak emateko deialdietan esleituko diren kopuru orokorrak aldatu egin ahal izango dira, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren beste laguntza-programa batzuk burututakoan agortu ez diren aurrekontu-erabilgarritasunen arabera, eta horien ebazpena egin aurretik eskatutako laguntzen zenbateko osoa kontuan hartuta. Kasu hori argitara emango da Turismo Sailburuordearen ebazpenaren bidez.

### 3. artikulua.– Onuradunak.

1.– Agindu honetan jasotako laguntzak honako hauek eskuratu ahal izango dituzte: udalek, mankomunitateek, koadrilek, beste erakunde publiko batzuek, sektoreko elkarte profesionalek, irabazteko asmorik gabeko erakundeek, prestakuntza-erakundeek eta toki-korporazioek sustatutako garapen-agentziek.

2.– Agindu honetan araututako laguntzak onuradunei eman eta, hala badagokio, ordaintzeko, edozein zigor- edo itzultze-prozedura amaituta egon behar da aldez aurretik, betiere, prozedura horiek, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiak eta bere erakunde autonomoek emandako jatorri bereko laguntza edo diru-laguntzen esparruan hasita, oraindik izaipidetzen ari badira.

### 4. artikulua.– Diruz laguntzeko ekintzak.

ción de cursos, jornadas y seminarios de contenido turístico establecido en el artículo 29 del Decreto 121/2000, de 27 de junio por el que se establecen distintas líneas de ayudas con fines de promoción económica.

2.– De acuerdo con dicho Programa de ayudas, se subvencionarán aquellas actividades que supongan la exposición y desarrollo de temas relativos al sector turístico y que se organicen en forma de congresos, cursos, jornadas técnicas, foros, mesas redondas, seminarios o de cualquier otra forma análoga, así como visitas técnicas de contenido turístico.

### Artículo 2.– Recursos Económicos.

1.– Los recursos económicos destinados a la finalidad del artículo anterior procederán de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco o los que resulten de su actualización en el supuesto de que se aprueben modificaciones presupuestarias o en función de su vinculación.

2.– La adjudicación de todas las ayudas presentadas se realizará de una sola vez, sin utilizar la técnica concursal, por tratarse de un programa cuya finalidad es otorgar ayudas a todos aquellos que cumpliendo los requisitos exigidos realicen las actividades previstas. Si las disponibilidades presupuestarias fueran insuficientes, se procederá al prorrateo del importe global máximo destinado a esta ayuda entre los beneficiarios de la misma, tomado como base para su cálculo el importe de la subvención teórica.

3.– Los importes globales que se consignen en las convocatorias de concesión de ayudas correspondientes a cada ejercicio, podrán ser modificados, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo y con carácter previo a la resolución de las mismas. De esta circunstancia se dará publicidad mediante resolución de la Viceconsejera de Turismo

### Artículo 3.– Beneficiarios.

1.– Podrán acceder a las ayudas contempladas en la presente orden, los Ayuntamientos, mancomunidades, cuadrillas, otras instituciones públicas, las asociaciones profesionales del sector, entidades sin ánimo de lucro, agencias de desarrollo promovidas por Corporaciones Locales y entidades formativas.

2.– La concesión y, en su caso, el pago a los beneficiarios de las ayudas reguladas en esta Orden quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

### Artículo 4.– Actuaciones subvencionables.

1.– Agindu honetan jasotako laguntzak, itzuli beharrik ez duten diru-laguntzen bidez gauzatuko dira.

Agindu honen helburuetarako, diruz laguntzeko ekintza bezala honako hauek hartuko dira:

1.1.– 2000-2003 Sustapen Ekonomikoko Erakundeen Arteko planean jasotako turismo-sektoreko Diagnostikoan adierazten diren euskal turismoaren mehatxu eta ahultasun nagusiak konpontzera zuzendutako edukiak dituzten, eta gai berriak jorratu, eta turismoaren inguruko gaiak landuko dituzten kongresu, ikastaro, jardunaldi tekniko, foro, mahai-inguru eta mintegiak, edo antzeko beste hainbat modutan turismoaren arloarekin lotutako gaien azalpena eta garapena suposatuko duten jarduerak. Ikastaro eta mintegiek ezingo dute 20 ordu baino gehiago iraun.

Ekitaldi horien antolaketan diruz lagundu ahal izango dira antolakuntzako honako gastu hauek: kudeaketa, aretoa alokatzea, txostengileen dietak, ostatua, Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan bisita teknikoak, publicitatea eta ekitaldiaren antolakuntzarekin zuzenean lotuta egongo diren antzeko jatorriko beste hainbat ekintza.

1.2.– Esperientziei buruz, turismoko azpisektoreak garatzeko ereduak buruz, turismoko dinamizazio-planei buruz eta jatorri bereko beste edozein plani buruz ezaugarritako trukatzeko helburua dutelarik, bertako kide, agente, enpresa eta arduradun turistikoentzat Agindu honen 3. artikuluan onuradun gisa zehaztutako erakundeek, euren artean eta/edo helmugako agente turistikoaren artean, EAE barruan eta beste hainbat Autonomia Erkidegotan, egingo diren programatutako bisita teknikoaren antolakuntza.

Erakunde antolatzaileak deitutako pertsonen zaintza, ostatua, gidak, garraio kolektiboa eta laguntza tekniko kontzeptu gisako gastuak diruz lagundu ahal izango dira; horrenbestez, bertan ez dira sartuko lagun modura doazenez eragindako gastuak eta aparteko beste gastu gehigarri batzuk.

Helburu profesionala ez duten eta gutxienez 15 ki-dez osatzen ez diren bisita teknikoek ez dute laguntzarik jasoko.

2.– Kanpoan geratzen dira lanerako prestakuntzan, prestakuntza iraunkorrean zein prestakuntza arautuan koka daitezkeen prestakuntza-ekintzak.

3.– Ez dira erakunde antolatzaileko pertsonalaren gastuak zenbatuko.

4.– Jarduera guztiak laguntza-eskaera aurkeztutako den ekitaldi ekonomikoan burutu beharko dira.

##### 5. artikulua.– Laguntzen zenbatekoa.

1.– Turismo-sektoreari buruzko gaien erakusketa eta garapena suposatuko duten eta kongresu, ikastaro, jar-

1.– Las ayudas contempladas en la presente Orden se materializarán a través de subvenciones no reintegrables.

A los efectos de la presente Orden tendrán la consideración de actuaciones subvencionables:

1.1.– Las actividades que supongan la exposición y desarrollo de temas relativos al sector turístico, cuyos contenidos se dirijan a resolver las principales amenazas y debilidades del turismo vasco que se señalan en el Diagnóstico del sector turístico recogido en el Plan Interinstitucional de Promoción Económica 2000-2003, y que afronten cuestiones novedosas, y que se organicen en forma de congresos, cursos, jornadas técnicas, foros, mesas redondas y seminarios de contenido turístico o de cualquier otra forma análoga. Los cursos y seminarios no podrán tener una duración superior a 20 horas.

En la organización de tales eventos, serán subvencionables los gastos de organización consistentes en la gestión, alquileres de sala, dietas de ponentes, alojamiento, visitas técnicas dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco, publicidad y cualesquiera otros de naturaleza análoga que estén directamente relacionados con la organización del evento.

1.2.– La organización de visitas técnicas programadas por las entidades enumeradas como beneficiarias en el artículo 3 de la presente Orden, para sus propios asociados, agentes, empresas y responsables turísticos, que se realicen dentro de la CAPV, y en otras CCAA, cuya finalidad sea promover el intercambio de conocimiento sobre experiencias, modelos de desarrollo de los distintos subsectores turísticos, planes de dinamización turística y cualesquiera otros de igual naturaleza, entre ellos y los responsables y/o agentes turísticos del destino.

Serán subvencionables los gastos en concepto de asistencia técnica, transporte colectivo, guías, alojamiento y manutención de las personas convocadas por el ente organizador, quedando, por tanto, excluidos los gastos ocasionados por los acompañantes y los gastos extras.

No será objeto de ayuda ninguna visita técnica que no tenga una finalidad marcadamente profesional y que no tenga un número mínimo de 15 participantes.

2.– Quedan excluidas las acciones formativas enmarcadas en la formación ocupacional, permanente o reglada.

3.– No se computarán los gastos de personal de la entidad organizadora.

4.– Todas las actividades deberán ejecutarse a lo largo del ejercicio económico en que se presenta la solicitud de ayuda.

##### Artículo 5.– Cuantías de las ayudas.

1.– El porcentaje de subvención para las actividades que supongan la exposición y desarrollo de temas rela-

dunaldi tekniko, foro, mahai-inguru eta mintegi, edo antzeko beste edozein modutan antolatuko diren jardueretara zuzendutako diru-laguntzaren ehunekoa, onartutako gastuen %40ra arte helduko da, gehienez 9.000 euroko zenbatekoarekin.

2.– Bisita teknikoetarako diru-laguntzen ehunekoa, onartutako gastuen %40ra artekoa izango da, gehienez 4.500 euroko zenbatekoarekin.

3.– Edonola ere, gastu edo inbertsio onargarri gisa bere balio «garbia» zenbatuko da; balio hori, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kenduta fakturatuko den kopurua izango da.

**6. artikulua.**– Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Agindu honetan ezarritako diru-laguntzak elkarren artean zein administrazio publiko edo erakunde pribatuek emandako beste hainbat laguntzekin bateragarri izango dira.

2.– Beste hainbat administrazio publiko edo erakunde pribatu edo publiko, nazional edo nazioartekoek emandako laguntza edo diru-laguntzekin batera jasotako laguntza ezingo da onuradunak burutuko duen jardueraren kostua baino handiagoa izan; hala bada, gehiegizkoari dagokion kopuruan murriztuko da arau honen arabera emandako laguntza.

## II. KAPITULUA PROZEDURA

**7. artikulua.**– Prozeduraren hasiera.

Agindu honetan araututako laguntzak urteko deialdi publikorako xede izango dira eta publikitate, lehia eta objektibotasuneko printzipioen arabera emango dira. Deialdia, Turismo Sailburuordearen ebazpen bidez egingo da eta ekitaldi horretan diru-laguntzak ematera zuzendutako aurrekontu-kontsignatzearen zenbatekoa zehaztuko du; halaber, kontsumoko prezioen indizearen (KPI) arabera agindu honetan ezarritako kopuruak eguneratu ahal izatea, eskaerak aurkezteko epea eta aurkezteko tokia zehaztuko ditu, baina derrigorrez, arau honetan ezarritakora egokitu beharko da.

**8. artikulua.**– Eskaerak eta dokumentazioa.

1. Agindu honetan aurreikusitako laguntzak jasotzeko eskaerak eta gainerako dokumentazio osagarria, proiektua antolatu den Lurralde Historikoan Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak duen Turismo Antolakuntzako Zuzendaritzara igorriko dira, eta dagozkien Lurralde Bulegoetan edo azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Arruntaren 30/1992 Legearen 38.4. artikuluan zehaztutako tokietan aurkeztuko dira. Eskaria, erakunde eskatzailea ordezkatzeko ahalmen legala duen pertsonak sinatuko du.

tivos al sector turístico y que se organicen en forma de congresos, cursos, jornadas técnicas, foros, mesas redondas y seminarios de contenido turístico o de cualquier otra forma análoga, será hasta el 40% de los gastos admitidos, con un importe máximo de 9.000 euros.

2.–El porcentaje de subvención para las visitas técnicas será hasta el 40% de los gastos admitidos, con un importe máximo de 4.500 euros.

3.– En todo caso, se computará como gasto o inversión admisible su valor «neto», entendiéndose como tal el importe facturado una vez deducido el Impuesto sobre el Valor Añadido.

**Artículo 6.**– Concurrencia con otras ayudas.

1.– Las subvenciones establecidas en la presente Orden, serán compatibles, tanto entre sí como con cualquiera otras otorgadas por las administraciones públicas, o por las entidades privadas.

2.– El importe de la subvención no podrá, en concurrencia con ayudas o subvenciones de otras administraciones públicas o entes privados o públicos, nacionales o internacionales, superar el coste de la actividad a desarrollar por el beneficiario, en tal caso se minorará en la cantidad correspondiente al exceso, la ayuda concedida en virtud de la presente norma.

## CAPÍTULO II PROCEDIMIENTO

**Artículo 7.**– Iniciación del procedimiento.

Las ayudas reguladas en la presente Orden serán objeto de convocatoria pública anual y se otorgarán bajo los principios de publicidad, concurrencia y objetividad. La convocatoria se realizará por resolución de la Viceconsejera de Turismo y determinará el importe de la consignación presupuestaria destinada para el otorgamiento de las subvenciones en ese ejercicio, así como la posible actualización de las cuantías establecidas en la presente orden conforme al índice de precios al consumo (IPC) el plazo para la presentación de solicitudes, los lugares para su presentación, aunque deberá ajustarse necesariamente a lo establecido en la presente norma.

**Artículo 8.**– Solicitudes y documentación.

1.– Las solicitudes y demás documentación complementaria para acogerse a las ayudas previstas en la presente Orden se dirigirán a la Dirección de Ordenación Turística del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, y se presentarán en las correspondientes Oficinas Territoriales o en los lugares especificados en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. La instancia será firmada por la persona que posea capacidad legal para representar a la entidad solicitante.

2. Eskaera eta formularioen eredia Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Lurralde Bulegoek banatuko dute edo [www.eragintza.net](http://www.eragintza.net) helbidean eskura daiten, Turismo Sailburuordearen ebazpenaren bidez laguntzen deialdia egin ondoren.

3.– Eskatzaileek eskaera osatzeaz gain, orokorrean, eta eskatzaile-motaren arabera exijitutakoa kaltetu gabe, honako oinarritzko dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

a) 4.1.1. artikuluan aurreikusitako jardueretarako:

Jardueraren memoria, eta bertan honako hau zehaztuko da:

– Material orokorra, hartzaileak, helburuak eta lanmetodoa.

– Programa, ekitaldi bakoitza, iraupena eta ordutegia, irakasleak edo txostengileak, eta non eta noiz egingo den zehaztuz.

– Matrikularen kostuari buruzko informazioa (kosturik badu), edo, doan bada, hala delako jakinarazpena.

b) Bisita teknikoak antolatzeko, 4.1.2. artikulua:

Jardueraren memoria, eta bertan honako hau zehaztuko da:

– Bisitaren xedea eta bere justifikazioa.

– Bisita teknikoaren programa zehatua.

– Partaideen zerrenda eta bisitaren xedearikiko bakoitzaren lan- edo okupazio-harremana.

– Helmugako agente eta/edo arduradun turistikoaren izenak.

– Jarduera badagoela egiaztatuko duen dokumentazioa.

c) Jarduera antolatzeko aurreikusitako gastu eta sarreraren aurrekontu zehatua eta banakaturia, eskatutako diru-laguntzarekin ordaindu nahi diren kontusailak identifikatuz.

d) Beste hainbat erakunde publiko edo pribaturia eskatutako edo bertatik jasotako laguntzen zinpeko aitortpena eta, hala badagokio, haien jatorri juridikoagatik hori egiaztatu beharko duten zergen obligazioen ordainketa egunean dutelako aitortpena.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura diru-laguntzen onuradunek zerga-obligazioak betetzea egiaztatzeari buruz Ogasun eta Finantza Sailburuaren 1991ko urriaren 7ko Aginduan edo berau ordezkatzeko duen arauan adierazitako kasuak ematen direnean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, eskatzailearen baimen espresa baldin badu, zerga-arloan organo eskudunei zuzenean, laguntza eta diru-laguntzen eskatzaileek zerga-obligazioak betetzea egiaztatuko duen ziurtagiria luzatzea eskatuko die. Es-

2.– Un modelo de solicitud y de formularios será facilitado por las Oficinas Territoriales del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, o podrá obtenerse en la Web:[www.eragintza.net](http://www.eragintza.net), una vez efectuada la convocatoria de las ayudas mediante resolución de la Viceconsejera de Turismo.

3.– Los solicitantes además de cumplimentar la solicitud, deberán adjuntar con carácter general, y sin perjuicio de la exigida por razón de la naturaleza del solicitante, la documentación básica siguiente:

a) Para las actuaciones previstas en el artículo 4.1.1:

Memoria de la actividad donde se especifique:

– Material global, destinatarios, objetivos y método de trabajo.

– Programa con detalle de cada una de las sesiones, duración y horario, profesorado o ponentes y lugar y fecha de celebración.

– Información sobre el coste de la matrícula en su caso, o gratuidad de la misma.

b) Para la organización de visitas técnicas, artículo 4.1.2:

Memoria de la actividad donde se especifique:

– Objeto de la visita y justificación de la misma.

– Programa detallado de la visita técnica.

– Listado de participantes y relación laboral u ocupacional de cada uno de ellos con el objeto de la visita.

– Nombre de los agentes y/o responsables turísticos de destino.

– Documentación que acredite la existencia de la misma.

c) Presupuesto detallado y desglosado de gastos y de ingresos previstos para la organización de la actividad, con identificación de las partidas que se pretenden sufragar con la subvención que se solicita.

